

TXORIERRIKO II. MUSIKA LEHIAKETA

LARRABETZU
LEZAMA
ZAMUDIO
DERIO
SONDIKA
LOIU
ERANDIO

TXORIERRIKO
GAZTEA BAZARA ETA
MUSIKA TALDERIK
BADUZU...
HAU DA ZURE
LEHIAKETA



ONARRIAK



TXORIERRIKO II. MUSIKA LEHIAKETA ONARRIAK

1. Lehiaketan parte hartu ahal izango dute interesa duten musika talde guztiek, betiere partehartzaileen artean 15 eta 29 urte bitarteko gazteren bat badute Erandion, Loiu, Sondikan, Derion, Zamudion, Lezaman edo Larrabetzun erroldatuta. Edozein musika estilotakoak izan daitezke, eta ezin dute merkatuan argitaratutako obrarik izan.
2. Txorierriko II. Musika Lehiaketan parte hartu nahi duten taldeek, 2015eko maiatzaren 29ra arte (hori barne) igorri ahal izango dituzte mp3 formatuan 2 abesti dituen CDa eta abestien letrak, pdf formatuan. Gutun-azal bakarria igorriko da posta ziurtatuaren bidez edo zuzenean entregatuko da hurrengo helbideetan:

TXORIERRIKO II. MUSIKA LEHIAKETA.

**Txorierriko Mankomunitatea
Gazteria**
Txorierriko Etorbidea 9, behea.
48160 DERIO – BIZKAIA

**Erandioko Udala
Gazteria Saila**
Irailaren 23a plaza
48950 ERANDIO - BIZKAIA

3. Taldeek, CDekin batera, eskatzen diren datu guztiak osatuta dituen inskripzio orria ere erantsiko dute (eskuragarri www.gaztetxorierri.eus web orrian). CDan agertu egingo da bertan sartu diren abestien izena, taldearen izenarekin batera.
4. Lehenengo fasean, epaimahaiak 2015eko ekainaren 15erako hautatuko ditu, jasotako CD guztien artean, lehenengo 7 talde finalistak, eta talde bakoitzak aurkeztutako 2 abestietatik bakarria aukeratuko du.
5. Lehiaketatik kanpo geratuko dira euren edukia, hizkera edo mezua tarteko, diskriminaziozkoak edo iraingarriak izan daitezkeen, sentiberatasunari kalte egin diezaioketen edo hirugarren pertsonen eskubideak urra ditzaketen proposamenak.
6. Bigarren fasera igarotzen diren 7 taldeek CD bat grabatuko dute estudio batean epaimahaiak aukeratutako abestiarekin, eta kopia kopuru jakin bat jasoko dute. Era berean, aipatu CDaren aurkezpenean (antolatzaileek aukeratzeko duten lekuan eta egunean) jotzeko konpromisoa hartuko dute.
7. Epaimahaiak aukeratzeko dituzten abestiak sare sozialen bidez zabalduko dira.
8. Bi modutan aukeratuko da Txorierriko II. Musika Lehiaketaren talderik onena, honako portzentaje hau aintzat hartuta:
 - % 30: sare sozialen bidez jasotako botoak.
 - % 70: parte hartzen duen epaimahaiaren botoak.
9. SARIAK
 - 300€ irabazten duen taldearentzat + 2. abestiaren grabaketa + CD kopuru handiagoa
 - 100€ www.gaztetxorierri.eus web orrian talderik botatuenarentzat + CD kopuru handiagoa
10. Epaimahaiak musika eta kulturako profesionalak egongo dira.
11. Epaimahaiak egokitzat jotzen badu, esleitu gabekotzat jo dezake edozein sari.
12. Lehiaketa honetan parte hartze hutsak oinarri hauek nahiz antolatzaileek lehiaketa garatu ahala egin ditzaketen interpretazioak edo doikuntzak erabat onartzea dakar.



TALDEKIDEAK	Izen-abizenak	Jaiotze data	Instrumentua	Herria														

TXORIERRIKO II. MUSIKA LEHIAKETA

TALDEAREN IZENA	
HARREMANETARAKO PERTSONA Izen-abizenak	
Helbidea	
HERRIA	
EMAIL-A	
P.K.	
TELEFONOA	